

Donostia, 2023ko abenduaren 05a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

UDALBATZAREN ORGANO ARAUDIA ALDATZEKO ARAU-PROPOSAMENAREN EKIMENA

Victor Lasa jaunak, Elkarrekin Donostia udal-talde mistoko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 90. eta 91. artikuluen babesean, UDALBATZAREN ORGANO ARAUDIA ORGANIKOA ALDATZEKO ARAU-PROPOSAMENAREN EKIMEN hau aurkezten du.

JUSTIFIKAZIOA

Udalaren batzorde iraunkorretan eta batzorde ez-iraunkorretan egindako lana oso garrantzitsua da erakundearen funtzionamendu demokratiko normalerako. Horietan partekatzen den informazioak eta dinamikek gero Udalbatzaren bilkuretan eta udal-gobernuaren zein oposizioko taldeen erabakietan gertatzen dena ulertzen laguntzen diete parte-hartzaileei eta behatzaileei.

Gaur egun, atak itxita egiten dira batzordeak, eta noizbehinka sartzen uzten zaie kazetariei, baina ezin dute bideoa edo soinua grabatzeko gailurik erabili. Hori anomalia bat dela esan daiteke; izan ere, hainbat erakundek modu gardenagoan funtzionatzen dute, eta zuzenean transmititzen diote edukia publikoari, bideo eta audio bidez. Hori da, adibidez, Gipuzkoako Batzar Nagusien kasua.

Hori guztia dela eta, honako hau aurkezten dugu:

ARAU-PROPOSAMENAREN EKIMENA, UDALBATZAREN ORGANO ARAUDIKO
126. ARTIKULUA ALDATZEKO

1. Udalbatzaren Organo Araudiaren 126. artikulua aldatzeko eskatzen diogu Udalari, udal batzorde iraunkorren eta ez iraunkorren bilkurak online streaming bidez (edo beste edozein metodo egoki erabiliz) transmititzeko, era horretan, jendeak bertan jorratzen diren edukiaren berri izan dezan lehenbailehen, bai zuzenean, bai geroratuta.

Victor Lasa,

Elkarrekin Donostia talde mistoko bozeramailea